

- 1 - Zer bilhakatu da Piarres?
- 2 - Nor da Franxisko?
- 3 - Nor da Ganix?

II ORTZANGO ERREKAN 2

Hainbertzenarekin, tiro bat aditzen du han, urrun, Serresko kaskoan. Guarda gelditu da. Etsitua bide duke, eta bertzalde, tiroz haren galdea dukete lagunek. Piarres salbu da oraikotik, gerriko txar bat, hartako eremana zuen gerriko txar bat, garaztar guardari utzirik doi doa.

Eta Piarres, orhoitzapen horrek arindurik, tanpa tanpa badao bethi, Beholan harat, Kamieten-bordan harat, Atsulaiko azpitik, Urdazurirat buruz.

Bet-betan, azienda zerbeit, ezpainak luzatuz, norbeitak akulatu¹⁵ nahi balu-bezala, han, alde aldean, haitz ondo baten parretik¹⁶ heldu, aditzen du halako xixtuñasta bat: "Buuu! Buuu!". Begi onak zituen Piarresek, bederen¹⁷ ostixoko huntzaren begiak bezen onak. Gehiagokerik gabe, Franxixko, beren *espiuna* laster ezagutzen du az, han, arbola-ondoarekin bat egiten duen mamu hartan.

— Ii haiza, hor, Franxixko? Zer berri da?

— Lagunak bilduxeak direla dakikan bordaldean, bilduak ere gaur iraganarazi behar ditugun hogoita bi pottokak.

— Eta guardak?

— Oh! guardak! Beren ohe-kamantzetan hobeki dituzkek, holako gauarekin!...

— Hoa hi, to, sekulan! Herbia lo ez othe ziagok...

— Ba, errana den bezala, herbia lo ziagok uste ez den tokian, eta guardak... beren kamantzetan... Senpereko guarda horietarik ez duk bethi, gaur oraino, bihirik¹⁸ agertu hemen gaindi, eta Dantxariakoak ongixko diaudek, hantxet, beren atherbean kukuturik. Hemen ikusten hautanaz geroz, ni heienanatan joan ere gabe, errotek beraz laguneri, aiphatu tenorean mugi ditezen, eta zalhu zalhua gero! Xipatua¹⁹ nauk zangoetarik kaskoraino, eta hormatua zinez eta egiazki-erna zaizte beraz, eta zuek, hor, nere gibelan, sumatu beren laster, han harat aintzina joanen nauk, Ganix bertze *espiuna* k... situ arte. Deskantsu ethor zaitezketek: badiat beldurra, oraikotik, nehorik ez duen jakin gaurko gure balentria²⁰.

— Erran bezala beraz, Franxixko, eta Jainkoak digula gau on!"

Lo ziagok = il dort (tutoicement)
= il reste dormant.

Ongixko diaudek = ils sont (ils restent)
très bien

Joanen nauk (nauk) = j'irai

III ADITZ IKASKUNTZA

- 31 - Galdea dukete
- 32 - Nahi balu
- 33 - Dakikan
- 34 - Mugi ditezen

31 UKAN - Potentiel présent.

Nik duket.	} Obj	= je peux l'avoir (je dors)
Hiek dukek		= tu peux l'avoir (l'avoir)
Zuek dukezu		= vous pouvez l'avoir
Harek duke		= il peut l'avoir
Guk dukegu		Sing. = nous pouvons l'avoir
Zuek dukezu		= vous pouvez l'avoir
Heiek dukete		= ils peuvent l'avoir etc

32 UKAN - Suppositif éventuel 1^{re} forme

Obj. sing.		Obj. pluriel
Nik banu (niraj l'avais)	}	banitu (niraj les avais)
Hiek banu		banitu
Zuek bazinu		bazinitu
Harek banu		balitu
Guk bazinu		bazinitu
Zuek bazintu		bazinituzte
Heiek balitu etc.		balituzte et.

33 JAKIN - Indic Present (tutoicement)

Nik diakiat (diakinat)	= je sais
Hiek dakik (dakin)	= tu sais
Harek diakik (diakin)	= il sait
Guk diakiagu (diakinagu)	= nous savons
Zuek dakizue	= vous savez
Heiek diakie (diakine)	= ils savent